


Memoria paperean

Altzako Historia Mintegiak, Donostia Kulturaren laguntzarekin, "Altza, hautsa kenduz" liburu bildumaren zazpigarren zenbakia aurkeztuko du ostiralean, hilak 19, Bidebietan. Altzari buruzko datu historikoak, geografikoak zein aisialdiarekin lotutakoak bildu dituzte bertan.

Argazkien, informazioaren eta esperientzien bitartez, memoria historikoa berreskuratzea, zaintzea eta ezagutaraztea. Horretarako kaleratzen du Altzako Historia Mintegiak, bi urtean behin, liburu bat "Altza, hautsa kenduz" sailean. Ostiralean, hilak 19, zazpigarrena aurkeztuko dute Bidebietako zahar etxean, 19.30ean. Aurreko urteetan bezala, hamaika arlok tartea dute liburuan: literaturak, historiak, geografiak, aisialdiak... Hona hemen zenbaki honetako edukietako zenbait: Ramon Irigoienek -Joan Mariren



Joakin Garridok egin du liburuaren azala.

aita- 1948an euskaraz egindako Oscar Wilde-ren ipuin baten egokitzapena; Paco Sagarzazu aktore eta idazle herreratarak 1977an idatzitako "Para no sé quien" eleberraren atal bat -Altzan girotua-; Aranzadiko kide Angel Calvoren Altzako Uba elizari buruzko artikulua- bigarren zatia -lehen "Altza hautsa kenduz" bildumaren aurreko zenbakian plazaratu zuen-; Juan Carlos Mora eta David Zapirain historialariek Altzan XVIII. mendean izandako gizarte tirabirei buruz egindako ikerketa; eta Bidebietako argazki zaharrak, 1887an La Asuncion ikastetxearen aurre-

an eta 1945ean Contadores lantegiko lehen promozioari egindakoak, tartean.

Bi zenbaki agortuta

Kaleratutako 700 aleak mintegiaren egoitzan bertan (Casares kultur etxea) eta Altzako kiosko eta liburu dendetan daude salgai, sei eurotan. Aurreko zenbakiak harrera bikaina izan zutela esan digute mintegiko lagunek; lehen eta hirugarren aleak agortu izana, horren adierazgarri. Dena dela, bi ale horiek, gainerako guztiak bezala, pdf formatuan irakur daitezke www.altza.net webgunean.

Egia

Txoko Internazionalistako azoka

Plaza Berriko Txoko Internazionalista-n zenbait ekimen egingo dira datozen egunotan. Urtarrilaren 5a arte -igande eta jai egunetan izan ezik-, Komite Internazionalisten eta Lum-Chiapas Elkartasun Taldearen egutegiak, pinak eta artisauek lanak erosi ahal izango dira. Horrez gain, bi erakusketa izango dituzte: "KI-25 urte-kartelaren erakusketa" eta "Irak: Inbasio baten irudiak". Azkenik, urtarrilaren 2an, "Zapatistas, crónica de una revolución" bideoa proiektatuko dute. Txoko Internazionalista arratsaldeko zabalik.



euskararen donostia

patronatu



Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

Antzerkia

- "Poxpolo, Mokolo eta konpainia"

Antzezlanak
Abenduaren 23an, 17:00etan
Loiolako kultur etxean

Haur zinema

- "Doraemon eta malen inperioa"

Tsutomu Shibayama
Japonia, 95 min.
Abenduaren 23an, 17:00etan
Lugaritz kultur etxean

Musika

- Ruper Ordorika

Abenduaren 19an, 21:00etan
Egia kultur etxean

- Bettzu taldea

Gabonetako-haur kontzertua
Abenduaren 23an, 17:30etan
Ategorrietako Zuhazti ikastetxean
Sarrerak Larrotxene eta Okendo kultur etxeetan abenduaren 16tik aurrera: 4€

Bertsolaritza

- Bertso emanaldia

Andoni Egana, Sustrai Colina,
Jesus Mari Irazu, Arkaitz
Goikoetxea
Gai-jartzailea: Jon Zaldua
Abenduaren 19an, 22:30etan
Lugaritz kultur etxean

euskaraz.net